Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Ekologia, Klima Aldaketa eta Iraunkortasunari buruzko irakurketa ibilbide bat sortuz Lehen Hezkuntzan: "Ilargiker eta Klima aldaketa" irakurketa bilduma



MIKROKREDENTZIALA

MODALITATEA

Online sinkronikoa

HIZKUNTZA

Euskara

KREDITU KOPURUA

1 ECTS kreditu

PREZIOA

10,47

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

TESTUINGURUA:

Euskal hezkuntza-sistemaren erronka nagusietako bat irakurketa-gaitasuna garatzea da, batez ere adin goiztiarretan. Horretarako, irakurketa-ibilbide berriak behar dira, ikasleen ulermen-maila sustatzeko eta gizartean parte har dezaten errazteko. Testuinguru horretan, Mikrokredentzial honek testu idatziak eta bere sorkuntzaren ingurune soziokulturala ditu ardatz. Horregatik, haurren sozializazio-prozesuan, finkatutako ikerketa-taldeen emaitza zientifikoak zabaldu nahi dira, testu idatziei beste orientazio bat emanez. Basque Centre for Climate Change - Klima Aldaketa Ikergai, adibide ona da (BC3). BC3k klima-aldaketa eta haren ondorioak aztertzen ditu, eta Parisko Akordioaren ondoren (2015-2016), klima-aldaketaren aurkako borrokaren ondoriozko xedeak, erronkak eta eskariak bete nahi ditu.

Testu idatzien norabide berri honetan, "Ilargiker eta klima-aldaketa" ipuinen irakurketa bilduma adibidea da. Horrela, haurrentzako idatzizko testu bilduma honen bidez, irakurketa, ekologia eta klima aldaketari buruzko ezagutza sustatzen dira.

Haur-idazki horietan azaldutako ezagutzetan sakontzeaz gain, irakurketarekin lotutako gizarte eta hezkuntza-jarduerak sortzea proposatzen zaie hezkuntzako espezialistei, beren ingurune hurbilean klima-aldaketaren aurkako ekintzak sustatzeko.

Mikrodentzial honetan, Design Thinking (DT) metodologia aktiboaren eta haren lan-etapen bidez (enpatia, definizioa, asmakuntza, prototipoa, elaborazioa eta proba) ikaste-irakaste esku-hartzeak sustatuko dira, eskola-ingurune iraunkorragoa lortzeko. Haur-testuekin egingo diren jarduerak testuinguruan kokatuko dira eta parte-hartzaile bakoitzari egokituko zaizkio.

HELBURUAK:

- Irakurketa ibilbide berriak sortzea: irakurtzeko ohitura eta irakur-zaletasuna bultzatzea.
- Irakurlearen, testuaren eta bere esperientziaren arteko loturak garatzea, gizartean aktiboki parte har dezan.
- Klima-aldaketak Lehen Hezkuntzan dituen ondorioak aztertzea eta arintzea.
- Ekologia, klima aldaketa eta glaziazioa, bero-boladak hirian, objektuen bizi-zikloa eta ekonomiaren deskarbonizazioaren inguruko gaien hausnarketa eta esku hartzea garatzea.
- Design Thinking (DT) metodologiaren bitartez LH ingurunean klima-aldaketari erantzutea.
- Emakumeak duen rola zientzian eta ikerkuntzan azpimarratzea.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GAITASUNAK:

ESCO. *ESCO Trebetasunen, Gaitasunen, Kualifikazioen eta Okupazioen Europako Sailkapena*		
1. Ezagutzak https://esco.ec.europa.eu/en/classification/skills?uri=http://data.europa.eu/esco/isced-f/052#overlayspin	**2. Hizkuntza trebetasunak eta ezagutzak** https://esco.ec.europa.eu/en/classification/skills?uri=http://data.europa.eu/esco/isced-f/052#overlayspin	**3. Zeharkako gaitasunak** https://esco.ec.europa.eu/es/classification/skill_main#overlayspin
0521. Ingurumena Ekologia eta Ingurumena	**L1. Euskara idatzia ulertu** Euskaraz idatzitako testuak irakurri eta ulertzea	**T6.2. Ingurumen-gaitasunak eta trebetasunak erabiltzea** - Kontsumoaren inpaktu negatiboa murrizteko bideak hartzea - Kutsadura murrizteko bideak hartzea - Jokabide pertsonalaren ingurumen-inpaktua ebaluatzea - Beste pertsona batzuek ingurumenerako jarrera positiboak hartzea

PROGRAMA:

Saioak	Hiru 1. Saioa. Testuingurua. Klima-aldaketa. Iraunkortasuna. Irakurketa gaitasuna eta irakurketaren ibilbide berriak. Irakurketa aplikatua: "Ilargiker eta klima-aldaketa" irakurketa-bilduma ezagutzea.
	2. Saioa. "Desing Thinking" metodologia aktiboa eta iraunkortasuna. Hezkuntzako testuinguru bakoitzari "Ilargiker eta klima-aldaketa" irakurketa-bildumaren eredua erreparatuz jarduera bat sortu.
	3. Saioa. Kasu praktikoen analisia eta eztabaidak. Banakako lana.
Gaiak	. Klima aldaketa eta glaziazioa . Bero-boladak-hirian . Objektuen bizi-zikloa . Ekonomiaren deskarbonizazioa
Ebaluaketa	Irakasleak ipuina-gaia bakoitzarekin planteatutako jarduera prestatu "Desing Thinking" metodologia aplikatuz.
Datak-orduak	1. Saioa. Maiatzaren 19a. 16:30-20:00 2. Saioa. Maiatzaren 26a. 16:30-20:00 3. Saioa. Ekainaren 2a. 16:30-19:30
Plataforma	EHUon
EHUko irakasleak	1. Iratxe Rubio. Zientzia eta Teknologia Fakultatea. iratxe.rubio@ehu.eus 2. Amelia Benito del Valle. Bilboko Hezkuntza Fakultatea. amelia.benitovalle@ehu.eus

IKASKUNTZAREN EMAITZAK ETA LORPEN MOTA:

1. **Klima-aldaketaren eta iraunkortasunaren kontzientzia hartzea**
Irakurketa aplikatuaren bidez, Lehen Hezkuntzako ikasleak kontzientziatzea lortzea, ekologia, klima-aldaketa eta iraunkortasuna zer diren eta iraunkortasunari banaka eta taldeka nola aurre egin behar dioten jakin dezaten.

2. Iraunkortasuna garatzeko jarduerak proposatzen jakitea
"Ilargiker eta klima-aldaketa" bildumak proposatutako irakurketa bakoitzarekin eta "Desing Thinking" metodologia aktiboa aplikatuta, ikastetxean klima-aldaketaren ondorioen aurka nola jardun behar den agerian uzten duten jarduera kooperatiboak antolatzen jakitea.

3. **Baliabideak eskuratzeko estrategiak proposatzea**
Haurrei estrategiak proposatzeko gai izatea, erakundeek (udalek) beren eskura jartzen dituzten klima-aldaketaren aurkako baliabideak eskura ditzaten.

4. **Haurren inplikazioa sustatzea**
Haurrak antolatzen jakitea, klima-aldaketak eskolan eta auzoan dituen ondorioak hobetzen inplika daitezen.

SARBIDE-BALDINTZAK ETA ONARPEN-IRIZPIDEAK:

- Haurren irakurketa gaitasunaren mailaren garapena bultzatu nahi duten pertsonentzat eta irakasleentzat.
- Irakurketa ibilbide berriak sortu nahi dituen profesionalentzat eta irakasleentzat.
- Irakurketa aplikatuan eta klima-aldaketan interesatuta dauden hezkuntzako profesionalentzat eta irakasleentzat.
- Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan iraunkortasunaz arduratzen diren pertsona eta profesionalentzat.
- Unibertsitateko ikasleak (Gradukoak zein Graduondokoak).
- Haur-irakurketan eta klima-aldaketan interesa duten unibertsitate-titulurik gabeko pertsonentzat.
- Hezkuntza formaleko nahiz ez-formaleko eremuetan diharduten irakasleak eta profesionalak.

IRAKASLEAK:

"Ilargiker eta klima-aldaketa" izeneko irakurketa-bilduman oinarritutako mikrokredentziala garatzeko, bi ikertzaile-irakasle espezializatuak hartuko dute parte. Alde batetik, Iratxe Rubio, EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatekoa eta BC3 ikertzaile laguntzailea, eta Amelia Benito del Valle, EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultatekoa. Ikastaro horrek hainbat ezagutza eta ikuspegi teoriko biltzen ditu hezkuntzaren eta klima-aldaketaren arloetatik. LHn irakurtzeko gaitasuna sakontzea eta hobetzea du helburu. Era berean, klima-aldaketarekin eta iraunkortasunarekin lotutako edukiak eta estrategiak garatzea sustatzen du.